

2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 70 KULTURA ETA KIROLA
Programa: 336702 HISTORIA ETA
ARKITEKTURA ONDAREA

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

Departamento: 70 CULTURA Y DEPORTE
Programa: 336702 PATRIMONIO HISTÓRICO
ARQUITECTÓNICO

SAILAREN MEMORIA

MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

I. MEMORIA

Arabako kultura ondarea, modu zabalean ulertuta eta haren alderdi *higiezina*, *higigarria* eta *ukiezina* aintzat hartuta, etengabe artatu behar dute lurraldeko administrazio guztiek, bereziki Foru Administrazioak.

Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak, kultura ondare higiezina kontserbatzeko foru eskumenak dituen aldetik, eta indarrean dagoen legeriarekin bat etorritik (funtsean, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legea), argi eta garbi bereizitako **hiru helbururen** inguruan garatzen du jarduera:

a) **Baimenak ematea eta ikuskatzea:**

2022an Euskal Kultura Ondarearen Legea eta hirigintza eta sektore mailako lege esparrua kontrolatzeko eta betetzeko kudeatu diren txosten guztien kopurua % 105 hazi da aurreko urtearekin alderatuta, eta 2018tik etenik gabe igotzen ari da.

2022an egindako ikuskapenen kopurua aurreko urtekoaren parekoa izan da.

b) **Kontserbazioa eta zaharberritzea:**

Toki erakundeek ondasun historiko-arkitektonikoak zaharberritzeko 2022an sustatutako laguntza-eskaeren kopurua aurreko urtekoaren parekoa izan da.

Hona hemen laguntza-lerroen arteko banaketa:

Elementu txikiak zaharberritzeko laguntzen lerroa:

Eskaera kopurua: 25

Emandakoen ehunekoak: % 12

Dirulaguntza jaso dutenak: 3

Adjudikatutako aurrekontuaren ehunekoak: % 100

I. MEMORIA

El Patrimonio Cultural Alavés, entendido de manera amplia y abarcando sus vertientes: *inmueble*, *mueble* e *inmaterial*, debe ser continuamente objeto de atención por parte de todas las administraciones del territorio, en especial de la administración foral.

El Servicio de Patrimonio Histórico Arquitectónico ostenta las competencias forales en materia de conservación del Patrimonio Cultural Inmueble y, de acuerdo con la legislación vigente emanada fundamentalmente de la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco, desarrolla su actividad en torno a **tres objetivos** claramente diferenciados:

a) **Autorización e inspección:**

El número total de expedientes de informe gestionados para el control y cumplimiento de la Ley de Patrimonio Cultural Vasco y del marco legal urbanístico y sectorial, durante el año 2022, ha aumentado respecto al año anterior en un 105% y tiene una tendencia ascendente continuada desde el año 2018.

El número de inspecciones realizadas durante el año 2022 se ha mantenido respecto al año anterior.

b) **Conservación y restauración:**

El número total de solicitudes de ayuda para la restauración de bienes histórico-arquitectónicos promovidas por las entidades locales, durante el año 2022, se ha mantenido respecto al año anterior.

Desglose por líneas de ayudas:

Línea de ayudas para la restauración de elementos menores:

Número de solicitudes: 25

% Concedidas: 12%

Número subvencionadas: 3

% Presupuesto adjudicado: 100%

2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 70 KULTURA ETA KIROLA

Programa: 336702 HISTORIA ETA
ARKITEKTURA ONDAREA

Gauzatutako aurrekontuaren ehunekoa: % 100

- Ü Samianoko errota (Trebiñuko Konderrria): birgaitze obrak, 2. fasea.
- Ü Untzako errota (Urkabustaiz): zaharberritze obrak, II. fasea.
- Ü Igaiko zubia (Erriberabeitia): presako sendotze proiektua eta obrak.

Baselizak zaharberritzeko laguntzen lerroa:

2022ko eskaeren kopurua: 14

Emandakoen ehunekoa: % 29

2022an diruz lagundutakoen kopurua: 4

Adjudikatutako aurrekontuaren ehunekoa: % 100

Gauzatutako aurrekontuaren ehunekoa: % 82,40*

*OHARRA: ez da % 100era iritsi Artziniegako Udalak uko egin ziolako dirulaguntzari; 2022ko azaroaren 8an Angostinako Administrazio Batzarrari eman zitzaion laguntza, puntuazioaren araberrako hurrenkerari jarraituz, baina erakunde horrek proiektua baino ez du egin, ezin izan duelako obra egin ezarritako epean (2022-12-30).

Ü Legutioko Magdalena baseliza: egitura finkatzea (2021eko ekitaldiko dirulaguntza, otsailaren 8ko 61/2022 Foru Erabakiarekin bat etorrituz epea luzatu egin baitzen obra 2022ko aurrekontu partidaren kargura egiteko); eta II. fasearen proiektua egitea.

Ü Otoabarrengo Santa Marina baseliza: barrualdeko fatxada berritzea.

Ü Berganzoko Landako Andra Mariaren baseliza: zimenduak sendotzea.

Ü Angostinako San Bartolome baseliza: birgaitze proiektua.

Eraikinak zaharberritzeko laguntzen lerroa:

2022ko eskaeren kopurua: 18

Emandakoen ehunekoa: % 17

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

Departamento: 70 CULTURA Y DEPORTE

Programa: 336702 PATRIMONIO HISTÓRICO
ARQUITECTÓNICO

% Presupuesto ejecutado: 100%

- Ü Molino de Samiano (Condado de Treviño): Obras de rehabilitación Fase 2ª.
- Ü Molino de Untza (Urkabustaiz): Obras de restauración Fase II.
- Ü Puente de Igai (Ribera Baja): Proyecto y obras de consolidación de urgencia.

Línea de ayudas para la restauración de ermitas:

Número de solicitudes 2022: 14

% Concedidas: 29%

Número subvencionadas 2022: 4

% Presupuesto adjudicado: 100%

% Presupuesto ejecutado: 82,40%*

*NOTA: no se ha llegado al 100% porque el Ayuntamiento de Artziniega renunció a la subvención, y con fecha 08/11/2022 se concedió la ayuda, por orden de puntuación, a la Junta Administrativa de Angostina. La entidad sólo ha realizado el proyecto, debido a la imposibilidad de realizar la obra dentro del plazo de finalización marcado (30/12/22).

Ü Ermita de la Magdalena de Legutio: Consolidación estructural. Subvención del ejercicio 2021, que conforme al Acuerdo Foral 61/2022, de 8 de febrero, se amplió el plazo para la ejecución con cargo a la partida presupuestaria del 2022; y redacción de proyecto Fase II.

Ü Ermita de Santa Marina de Hueto Abajo: Renovación fachada interior.

Ü Ermita Virgen del Campo de Berganzo: Consolidación de cimentación.

Ü Ermita de San Bartolomé de Angostina: Proyecto de rehabilitación.

Línea de ayudas para la restauración de edificios:

Número de solicitudes 2022: 18

% Concedidas: 17%

2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 70 KULTURA ETA KIROLA
Programa: 336702 HISTORIA ETA
ARKITEKTURA ONDAREA

2022an diruz lagundutakoen kopurua: 3

Adjudikatutako aurrekontuaren ehunekoa: % 100

Gauzatutako aurrekontuaren ehunekoa: % 57,42

*OHARRA: ez da % 100era iritsi Laudioko Udalak ez duelako obrarik egin eta Aguraingo eta Bastidako udalek proiektuak bai, baina obrarik ezin izan dutelako egin adjudikatutako diru kopuruarekin eta ezarritako epean (2022-12-30).

Ü Gesaltza Añanako harresia: II. fasea.
Zaharberritu eta balioa agerian jartzea.

Ü Aguraingo harresia: zaharberritze proiektua.

Ü Bastidako udaletxea: fatxada nagusia
zaharberritzeko proiektua.

Partikularrek ondasun historiko-arkitektonikoak zaharberritzeko sustatutako laguntza-eskaeren guztizko kopurua 2022an % 127 igo da aurreko urtearekin alderatuta, eta etengabe hazten ari da. Hauek dira finantzatutako proiektuak:

Ü Lantenoko Indianoaren Etxea: suak eragindako kalteak konpontzea.

Ü Arespalditzako Atxa jauregia: estalkia birgaitzeko obra.

Ü Gesaltza Añanako Zambrana-Herrán jauregia: fatxada birgaitzea eta egitura sendotzea.

Ü Gasteizko Aiztogile 40ko eraikina: etxarte aldeko fatxada eta estalkia birgaitzeko proiektua.

Ü Zuhatzako La Llana auzoko 19. zenbakiko baserria: estalkia birgaitzea.

Ü Amarita 3ko baserria (Gasteiz): birgaitzea.

Zuzeneko esku hartzei dagokienez, jarduketa hauek nabarmentzen dira:

Ü Labrazako harresia (Oion): egonkortze obrak,

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

Departamento: 70 CULTURA Y DEPORTE
Programa: 336702 PATRIMONIO HISTÓRICO
ARQUITECTÓNICO

Número subvencionadas 2022: 3

% Presupuesto adjudicado: 100%

% Presupuesto ejecutado: 57,42%*

*NOTA: no se ha llegado al 100% porque el Ayuntamiento de Llodio no ha realizado la obra y los Ayuntamientos de Salvatierra y Labastida sólo han podido realizar los proyectos, debido a la imposibilidad de realizar la obra con el importe económico adjudicado y dentro del plazo de finalización marcado (30/12/2022).

Ü Muralla de Salinas de Añana: Fase II.
Restauración y puesta en valor.

Ü Muralla de Salvatierra: Proyecto de restauración.

Ü Casa Consistorial de Labastida: Proyecto de restauración fachada principal.

El número total de solicitudes de ayuda para la restauración de bienes histórico-arquitectónicos promovidas por particulares, durante el año 2022, ha aumentado respecto al año anterior en un 127% y tiene una tendencia ascendente continuada. A continuación, los proyectos financiados:

Ü Casa del Indiano de Llanteno: Rehabilitación de daños causados por incendio.

Ü Palacio Atxa de Respaldiza: Obra de rehabilitación de cubierta.

Ü Palacio Zambrana Herrán de Salinas de Añana: Rehabilitación de fachada y consolidación de estructura.

Ü Edificio Cuchillería 40 de Vitoria-Gasteiz: Proyecto de rehabilitación de fachada a caño y cubierta.

Ü Caserío del barrio La Llana 19 en Zuaza: Rehabilitación de cubierta.

Ü Caserío de Amárita 3 (Vitoria-Gasteiz): Rehabilitación

En cuanto a intervenciones directas, destacan las siguientes actuaciones:

Ü Muralla de Labraza (Oyón-Oián): Obras de

2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 70 KULTURA ETA KIROLA

Programa: 336702 HISTORIA ETA
ARKITEKTURA ONDAREA

ipar-mendebaldeko horma-atalaren tarte bat zaharbertzeko proiektua, kontrol arkeologikoa, kalteei buruzko txostena, denboraren programazioa eta multzo harresidunean plan zuzentzailearekin lotuta egindako jarduketan balorazioa.

Ü Done Erroman eliza eta ingurunea, Tobillasen (Gaubea): balioa agerian jartzeko proiektua, instalazio elektrikoa berritzea, txosten geologikoa, esku hartze arkeologikoa, balioa agerian jartzeko obrak, hondakinen baheketa eta kudeaketa eta patologien kontrola.

Ü Navarreteko El Soto errota (Bernedo): exekuzio proiektua eta kontserbazio obra osagarriak.

Ü Gebara dorrea - Altamirako gaztelua: multzoaren balioa agerian jartzeko proiektua, dorrea hobetzeko eta barrualdea zaharbertzeko eta gazteluaren hondarrak sendotzeko exekuzio proiektua.

Ü Velascotarren kapera Galarretan: egungo kaperaren balioa agerian jartzeko exekuzio proiektua.

Azkenik, batzorde mistoaren bidez Gasteizko Elizbarrutiko Gotzaindegiarekin egindako esku hartzeak hauek dira:

Ü Jasokundeko Andra Mariaren eliza (Caicedo Yuso): obra eta zuzendaritza.

Ü Andra Mariaren eliza Lapuebla de Labarcán: obra eta zuzendaritza.

Ü Eltziegoko San Andres eliza: proiektua, 1. faseko obrak eta zuzendaritza.

c) Ezagutza eta zabalkundea:

Sartutako kultura ondasunen kopurua izugarri handia da, 12.253 ondasun dira guztira, eta horien ezagutzan sakontzeko esfortzu handia egin behar da, etengabe haiek hobetzen eta egiaztatzen jarraitzeko. Era berean, kanpoko erakundeetan parte hartzeko eskaerak gehitu egin dira, eta ondare historiko-arkitektonikoaren berri zabaltzeko proposamenak egin behar dira beste sail batzuekin lankidetzan.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

Departamento: 70 CULTURA Y DEPORTE

Programa: 336702 PATRIMONIO HISTÓRICO
ARQUITECTÓNICO

estabilización, proyecto de restauración de un tramo del paño noroeste, control arqueológico, informe de lesiones, programación temporal y valoración de las actuaciones en el conjunto amurallado y relacionadas con el plan director.

Ü Iglesia de San Román y su entorno, en Tobillas (Valdegovía): Proyecto de puesta en valor, reforma instalación eléctrica, informe geológico, intervención arqueológica, obras de puesta en valor, cribado y gestión de residuos y control de patologías.

Ü Molino del Soto de Navarrete (Bernedo): Proyecto de ejecución y obras complementarias de conservación.

Ü Torre de Guevara-Castillo de Altamira: Proyecto de puesta en valor del conjunto, proyecto de ejecución de la habilitación interior y mejora de la Torre y consolidación de los restos del Castillo.

Ü Capilla de los Velasco Galarreta: Proyecto de ejecución para la puesta en valor de la actual capilla.

Por último, las intervenciones a través de la Comisión Mixta con el Obispado de la Diócesis de Vitoria han sido las siguientes:

Ü Iglesia de Ntra. Sra. de la Asunción (Caicedo de Yuso): Obra y dirección.

Ü Iglesia de Santa María en Lapuebla de Labarca: Obra y dirección.

Ü Iglesia de San Andrés de Elciego: Proyecto, obras 1ª fase y dirección

e) Conocimiento y divulgación:

La necesidad de profundizar en el conocimiento del enorme número total de bienes culturales incluidos, un total de 12.253, requiere de un esfuerzo muy importante para su mejora constante y verificación continua. Asimismo, existe un aumento de las demandas de participación en organismos externos y una necesidad de realizar propuestas de divulgación del patrimonio histórico-arquitectónico en colaboración con otros departamentos.

2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 70 KULTURA ETA KIROLA

Programa: 336702 HISTORIA ETA
ARKITEKTURA ONDAREA

Argitalpen hauek egin dira:

- “Ondarea babesteko eta planeamendua egiteko gomendioen bilduma”.
- “Gasteizko Kuadrillako ondare arkitektonikoaren inbentarioa: elementu txikiak”.

ALHko ondare historiko-arkitektonikoko informazioaren eta funtsen sistemak eguneratzeari dagokionez, dokumentu funtsen kudeatzailean ondasun gehiago sartzeaz gainera, berrikusi egin dira Aramaio, Legutio, Arratzua-Ubarrundia eta Zigoitiko udalerrietako ondare historikoaren dokumentu funtsak.

2022an ALHko ondare historiko eta arkitektonikoa ikertzeko eta dokumentatzeko 8 azterlan eta proiektu egin dira:

- Gida dokumentua, eraikinak birgaitzeko lanetan segurtasunari buruzko oinarrizko dokumentuak betetzeko, suteei eta zarataren kontrako babesari dagokienez.
- Gasteizko Tomás Alfaro etxeari buruzko balorazio txostena.
- Aurretiazko azterketa ALHn berezitasun kulturala duten eremu homogeneoak zehazteko.
- Ondare eraikian eguzki panelak jartzeko azterketa.
- ALHko erloju monumentalen inbentarioa egitea.
- ALHko arkitektura garaikidea aztertze lanak (1875-1975 aldia): Aiarako Kuadrilla.
- Oinarrizko edo tokiko babesa duten eraikin katalogatuetan eguzki plakak jartzeari buruzko jarraibide teknikoak.
- Eraikin historikoetan energia efizientzia hobetzeko arogelez nahastutako kare-morteroei

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

Departamento: 70 CULTURA Y DEPORTE

Programa: 336702 PATRIMONIO HISTÓRICO
ARQUITECTÓNICO

Se han realizado las siguientes publicaciones:

- Publicación del “Compendio de recomendaciones para la protección del patrimonio y redacción del planeamiento”.
- Publicación de “Inventario de patrimonio arquitectónico en la Cuadrilla de Vitoria-Gasteiz: elementos menores”.

Respecto a la actualización de los sistemas de información y fondos del patrimonio histórico-arquitectónico del T. H. A., además de la incorporación de bienes al gestor de fondos documentales, se han revisado los fondos documentales del patrimonio histórico de los municipios de Aramaio, Legutio, Arratzua-Ubarrundia y Zigoitia.

A lo largo del 2022 se han elaborado 8 estudios y proyectos de investigación y documentación del patrimonio histórico arquitectónico del T. H. A.:

- Documento guía para el cumplimiento de los documentos básicos de seguridad en caso de incendio y protección frente al ruido en la rehabilitación de edificios.
- Informe de valoración sobre la Casa Tomás Alfaro de Vitoria-Gasteiz.
- Estudio previo para la determinación de áreas homogéneas con singularidad cultural del T.H.A.
- Estudio de implantación de paneles solares en patrimonio edificado.
- Inventariado de los relojes monumentales del T.H.A.
- Trabajos de estudio de la arquitectura contemporánea del T.H.A. (periodo comprendido entre 1875 y 1975): Cuadrilla de Ayala.
- Instrucción técnica sobre colocación de placas solares en edificios catalogados con protección básica o local.
- Investigación sobre morteros de cal aditivada con arogeles para la mejora de la eficiencia

2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 70 KULTURA ETA KIROLA

Programa: 336702 HISTORIA ETA
ARKITEKTURA ONDAREA

buruzko ikerketa (2019an hasitako lanaren jarraipena).

Jardunaldi eta aurkezpen hauek egin dira:

- Hispania Nostra Sarien II. Jardunaldia Iparraldean. Antolaketa, eta jardunbide egokiei buruzko txostena.
- “Gasteizko Kuadrillako ondare arkitektonikoa. Elementu txikiak” liburuaren aurkezpena.
- Online hitzaldia Orgazko kondeen dorre-jauregiaren zaharberitzeari buruz, eta “Micaela Portilla Eskola, gizarte, kultura eta lan arloetako ongizatearen dinamizatzaile Arabako landa ingurunean”.
- Micaela Portilla Vitoriaren jaiotzaren mendeurrena ospatzeko ekitaldiak.
- Euskadi Irratiko “Baipasa” saioan parte hartzea Arabako erloju monumentalez aritzeko.

Beste erakunde batzuekiko lankidetzari dagokionez, hitzarmen eta elkarlan hauek egin dira:

- Lankidetzaren Enanche 21 Zabalgunea SA hirigintzako udal sozietatearekin, hitzarmena eginez, jatorrizko eraikuntza sistemekin bateragarria den mortero isolatzailea garatzeko, aerogeles nahastutako kare hidraulikoan oinarritua, eraikin historikoen hobekuntza termikorako.
- Lankidetzaren Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Arabako Ordezkaritzarekin, zaharberitze arkitektonikoaren arloko prestakuntza espezializaturako (hitzarmenaren luzapena).
- Lankidetzaren Hispania Nostra fundazioarekin, “Hispania Nostra zurekin etxean: ondareak beti jotzen du atean bi aldiz” programan.
- UNE Normalización Españolari laguntzea

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

Departamento: 70 CULTURA Y DEPORTE

Programa: 336702 PATRIMONIO HISTÓRICO
ARQUITECTÓNICO

energética en los edificios históricos (continuación del trabajo iniciado en 2019).

Se han llevado a cabo las siguientes jornadas y presentaciones:

- II Jornada de los Premios Hispania Nostra en el Norte. Organización y ponencia de buenas prácticas.
- Presentación del libro “Inventario de patrimonio arquitectónico en la Cuadrilla de Vitoria-Gasteiz: elementos menores”.
- Conferencia online sobre la restauración de la Torre-palacio de los Condes de Orgaz y la escuela Micaela Portilla, dinamizadores del bienestar social, cultural y laboral en un entorno rural de Álava”.
- Actos de conmemoración del centenario del nacimiento de Micaela Portilla Vitoria.
- Participación en el programa de radio “Baipasa” de Euskadi Irratia sobre relojes monumentales en Álava.

En cuanto a las colaboraciones institucionales y con otros organismos, se han realizado los siguientes convenios y colaboraciones:

- Colaboración con la Sociedad Urbanística Municipal Enanche 21 Zabalgunea S.A. a través del convenio para el desarrollo de un mortero aislante compatible con los sistemas constructivos originales para la mejora térmica de los edificios históricos basados en cal hidráulica aditivada con aerogeles.
- Colaboración con la Delegación de Álava del Colegio Oficial de Arquitectos Vasco Navarro para formación especializada en restauración arquitectónica (prórroga del convenio).
- Colaboración con la Fundación Hispania Nostra en el programa “Hispania Nostra Contigo en casa: el patrimonio siempre llama dos veces”
- Asistencia a UNE normalización española como

2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 70 KULTURA ETA KIROLA
Programa: 336702 HISTORIA ETA
ARKITEKTURA ONDAREA

honako lantalde honetako kide gisa: CTN 041/SC 07/GT 01 “Kultura ondare higiezinaren irisgarritasuna”.

- Añanako Udalari laguntzea Añanako Gatz Harana helmuga turistikoaren proposamena prestatzeko, Next Generation UE funtsetarako.
- Oiongo Udalari laguntzea Eusko Jaurlaritzak emandako funtsekin Labrazako harresian obrak egiteko.
- Ensanche XXI Zabalgunea erakundeari laguntzea proposamenak hautatzeko prozesuetan, adituen batzordeen barruan.
- Lankidetzeta Añanako Kuadrillarekin, Micaela Portilla Eskolaren hautagaitza prestatzeko, Hispania Nostra sarietarako.

Azkenik, azpimarratu behar da Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren webguneko bisitak 7.535 izan direla 2022an, eta batez beste 15 minutu eta 17 segundo iraun dutela. Batez besteko iraupen hori aurreko urtean baino 12,93 minutu luzeagoa izan da.

II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE MAILA

1. HELBURUA. ALHko ondare historikoko ondasun higiezinaren kontserbazio egoera gainbegiratzea, horietan esku hartzea eta horiek babesteko jarduketak egitea:

Arabako Lurralde Historikoaren ondare arkitektonikoaren babesa eta kontserbazioa bermatuko dira Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak eta aplikatu beharreko gainerako arauak kultura ondasun babestuetan esku hartzeko esleitutako baimenak, ikuskapenak eta aholkuak emateko eskumenen bidez.

Helburu horren barruan, besteak beste, zeregin eta jarduera hauek jasoko dira:

1.1 ekintza. Euskal Kultura Ondarearen Legea betetzen dela kontrolatzea.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

Departamento: 70 CULTURA Y DEPORTE
Programa: 336702 PATRIMONIO HISTÓRICO ARQUITECTÓNICO

vocal en el grupo de trabajo CTN 041/SC 07/GT 01 “Accesibilidad al patrimonio cultural inmueble”.

- Asistencia al Ayuntamiento de Añana para la elaboración de propuesta para los Fondos Next Generation UE con el destino turístico Valle Salado de Añana.
- Asistencia al Ayuntamiento de Oyón para las obras en la muralla de Labraza derivadas de fondos del Gobierno Vasco.
- Asistencia a Ensanche XXI en los procesos de selección de propuestas dentro de los comités de expertos.
- Colaboración con la Cuadrilla de Añana para la preparación de candidatura de la Escuela Micaela Portilla para los premios Hispania Nostra.

Por último, cabe destacar que el número de visitas en la página web del Servicio de Patrimonio Histórico-Arquitectónico, durante el año 2022, ha sido de 7.535, con una duración media de 15 minutos y 17 segundos, tiempo de permanencia que se ha visto incrementado respecto al año anterior en 12,93 minutos.

II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

OBJETIVO 1. Supervisar el estado de conservación, la intervención en los bienes inmuebles del Patrimonio Histórico del T. H. A. y llevar a cabo las actuaciones de protección sobre los mismos:

Garantizar la protección y conservación del patrimonio arquitectónico del Territorio Histórico de Álava a través de las competencias de autorización, inspección y asesoramiento sobre intervenciones en bienes culturales protegidos atribuidas por la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco, y demás normativa de aplicación.

Las tareas y acciones que se enmarcan en este objetivo son, entre otras:

Acción 1.1. Control y cumplimiento de la Ley de Patrimonio Cultural Vasco.

2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 70 KULTURA ETA KIROLA

Programa: 336702 HISTORIA ETA
ARKITEKTURA ONDAREA

1.1.1. Babes berezi eta ertaineko ondasunen gaineko jarduketan derrigorrezko baimen espedienteen kopurua.

Espediente kopurua: 62

1.1.2. Monumentuen multzoetan emandako lizentziak ikuskatzeko espediente kopurua.

Espediente kopurua: 29

1.1.3. Babes bereziko kultura ondasunen eta bestelako lizentziak eman aurretiko txostenen kopurua.

Txosten kopurua: 92

1.1.4. Kultura ondasunei buruzko kontsulta eta aholkularitza txostenen kopurua (zaharberriak, arkitektonikoaren irizpideak, katalogazioa, azterlan arkitektoniko xehatuak, jaregiteak, balorazioa etab.).

Txosten kopurua: 80

1.1.5. Esku hartzei lotutako gainbegiratze eta kontrol ikuskapen teknikoaren kopurua.

Ikuskapenen kopurua: 261

1.1.6. Arabako Batzar Nagusietan egindako kontsultei, informazio eskaerei eta agerraldiei lotutako txostenen kopurua.

Txosten kopurua: 12

1.2 ekintza. Lege esparrua, hirigintzako, sektoriala eta lurralde antolamenduko kontrolatzea eta betearaztea.

1.2.1. Arabako monumentu multzoetan eta hirigune historikoetan udal antolamenduko planeamendu orokorra eta birgaitze integratuko planak berrikusteko eta aldatzeko egindako espedienteen kopurua; eta ingurumen inpaktua ebaluatzeko espedienteak, lurralde antolamendukoak eta gainerako legeria sektorialekoak.

Espediente kopurua: 80

2. HELBURUA. ALHko kultura ondare higiezina kontserbatzeko eta zaharberritzeko esku hartzeak bultzatzea:

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

Departamento: 70 CULTURA Y DEPORTE

Programa: 336702 PATRIMONIO HISTÓRICO
ARQUITECTÓNICO

1.1.1. Número de expedientes de autorización preceptiva en actuaciones sobre bienes de protección especial y media.

N.º Expedientes: 62

1.1.2. Número de expedientes de supervisión de licencias concedidas en conjuntos monumentales.

N.º Expedientes: 29

1.1.3. Número de informes previos a la concesión de licencia municipal en bienes culturales de protección básica y otros.

N.º Informes: 92

1.1.4. Número de informes de asesoramiento y consulta sobre bienes culturales (criterios de restauración arquitectónica, catalogación, estudios arquitectónicos pormenorizados, desafectación, valoración, etc.).

N.º Informes: 80

1.1.5. Número de inspecciones técnicas de control y supervisión asociadas a las intervenciones.

N.º Inspecciones: 261

1.1.6. Número de informes asociados a consultas, peticiones de información y comparencias realizadas desde las Juntas Generales de Álava.

N.º Informes: 12

Acción 1.2 Control y cumplimiento del marco legal, urbanístico, sectorial y de ordenación del territorio.

1.2.1. Número de expedientes de revisión y modificación del Planeamiento General de Ordenación Municipal y Planes de Rehabilitación Integrada en los Conjuntos Monumentales y Cascos históricos de Álava, así como, expedientes de evaluación de impacto ambiental, ordenación del territorio y resto de legislación sectorial concurrente.

N.º Expedientes: 80

OBJETIVO 2. Impulsar intervenciones de conservación y restauración del Patrimonio Cultural Inmueble del

2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 70 KULTURA ETA KIROLA
Programa: 336702 HISTORIA ETA
ARKITEKTURA ONDAREA

Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeak ondare arkitektonikoa kontserbatu, hobetu eta zaharberritu da, zuzenean edo beste erakunde batzuei laguntza ekonomikoa eta teknikoa emateko neurrien bidez.

Helburu horren barruan honako zeregin eta ekintza hauek jaso dira:

2.1 ekintza. Toki erakundeei, udalei eta kuadrillei zuzendutako laguntzen deialdia, ondasun historiko-arkitektonikoak zaharberritzeko (elementu txikiak, baselizak eta eraikinak):

2.1.1. Eskara kopurua

57 eskaera aurkeztu dira

2.1.2. Emandakoen ehunekoa

Eskaeren % 17,5 baietsi dira

2.1.3. Dirulaguntza jaso dutenak:

10 eskaerari eman zaie dirulaguntza

2.1.4. Adjudikatutako aurrekontuaren ehunekoa: % 100

Aurrekontuaren % 80 adjudikatu da

2.2 ekintza. Zuzeneko esku hartzeak kudeatzea

2.2.1. Esku hartzeen kopurua

5 esku hartze egin dira

2.3 ekintza. Finantzaketa eta lankidetzak ekonomikoa eta teknikoa erakunde publiko eta pribatuekin

2.3.1. Santa Maria Katedrala Fundazioaren bidez eginiko esku hartzeak

(ikusi Fundazioak 2022ko jarduketari buruz berariaz idatzitako memoria).

2.3.2. Gatz Harana Fundazioaren bidez eginiko esku hartzeak

(ikusi Fundazioak 2022ko jarduketari buruz berariaz idatzitako memoria).

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

Departamento: 70 CULTURA Y DEPORTE
Programa: 336702 PATRIMONIO HISTÓRICO
ARQUITECTÓNICO

T. H. A.:

Ejecutar la conservación, mejora y restauración del patrimonio arquitectónico del Territorio Histórico de Álava y del Enclave de Treviño, directamente o a través de medidas de apoyo económico y técnico a otras entidades.

Las tareas y acciones que se enmarcan en este objetivo son:

Acción 2.1. Convocatoria de ayudas para la restauración de bienes histórico-arquitectónicos (elementos menores, ermitas y edificios) dirigidas a entidades locales, ayuntamientos y cuadrillas:

2.1.1. Número de solicitudes

Se han presentado 57 solicitudes

2.1.2. % Concedidas

Se han concedido el 17,5% de las solicitudes

2.1.3. Número subvencionadas:

10 solicitudes subvencionadas

2.1.4. % Presupuesto adjudicado: 100%

Se ha adjudicado el 80% del presupuesto

Acción 2.2 Gestión de intervenciones directas

2.2.1 Número de intervenciones

Se han realizado 5 intervenciones

Acción 2.3. Financiación y colaboración económica y técnica con entidades (públicas o privadas)

2.3.1. Intervenciones a través de la Fundación Catedral Santa María

(ver memoria específica redactada por la Fundación sobre las actuaciones realizadas en 2022).

2.3.2. Intervenciones a través de la Fundación Valle Salado

(ver memoria específica redactada por la Fundación sobre las actuaciones realizadas en 2022).

2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 70 KULTURA ETA KIROLA
Programa: 336702 HISTORIA ETA
ARKITEKTURA ONDAREA

2.3.3. Micaela Portilla Eskolaren bidez eginiko esku hartzeak

(ikusi Añanako Kuadrillak Eskolaren 2022ko jarduketei buruz berariaz idatzitako memoria).

2.3.4. Gasteizko Elizbarrutiko Gotzaindegiarekiko batzorde mistoaren bidez eginiko esku hartzeak.

Esku hartzeen kopurua: 3

2.4 ekintza. Partikularrei zuzendutako ondasun historiko-arkitektonikoak zaharberritzeko laguntzen deialdia:

2.4.1. Eskaera kopurua

38 eskaera aurkeztu dira

2.4.2. Emandakoen ehunekoa

Eskaeren % 18,42 baietsi dira

2.4.3. Dirulaguntza jaso dutenak

7 eskaerari eman zaie dirulaguntza

2.4.4. Adjudikatutako aurrekontuaren ehunekoa

Aurrekontuaren % 100 adjudikatu da

3. HELBURUA. ALHko kultura ondare higiezina ezagutu eta dibulgatzea:

Arabako Lurralde Historikoko kultura ondare higiezinaren errealitatearen ikerketa, dokumentazioa eta katalogazioa sustatuko dira, eta eskuratutako ezagutza hori profesional eta erakundeen artean eta, oro har, gizartearen zabalduko da.

Helburu horren barruan zeregin eta ekintza hauek jaso dira:

3.1 ekintza. ALHren ondare historiko eta arkitektonikoaren funts eta informazio sistemak eguneratzea.

3.1.1. Dokumentu funtsen kudeatzailean jasotako ondasunen kopurua

Orain arte kudeatzailean 12.253 ondasun jaso dira guztira, eta sarrera horietatik 297 dokumentazioaren sarrera berriak dira.

3.2 ekintza. ALHren ondare historiko eta arkitektonikoaren dokumentazio eta

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

Departamento: 70 CULTURA Y DEPORTE
Programa: 336702 PATRIMONIO HISTÓRICO
ARQUITECTÓNICO

2.3.3. Intervenciones a través de la Escuela Micaela Portilla

(ver memoria específica redactada por la Cuadrilla de Añana sobre las actuaciones realizadas en 2022 por la Escuela).

2.3.4. Intervenciones a través de la Comisión Mixta con el Obispado de la Diócesis de Vitoria.

Número de intervenciones: 3

Acción 2.4. Convocatoria de ayudas para la restauración de bienes histórico-arquitectónicos dirigidas a particulares:

2.4.1. Número de solicitudes

Se han presentado 38 solicitudes

2.4.2. % Concedidas

Se han concedido el 18,42% de las solicitudes

2.4.3. Número subvencionadas

7 solicitudes subvencionadas

2.4.4. % Presupuesto adjudicado

Se ha adjudicado el 100% del presupuesto

OBJETIVO 3. Conocer y divulgar el Patrimonio Cultural Inmueble del T. H. A.

Promover la investigación, documentación y catalogación de la realidad del Patrimonio Cultural Inmueble del Territorio Histórico de Álava, así como difundir ese conocimiento adquirido entre profesionales, instituciones y sociedad en general.

Las tareas y acciones que se enmarcan en este objetivo son:

Acción 3.1. Actualización de los sistemas de información y fondos del patrimonio histórico-arquitectónico del T. H. A.

3.1.1. Número de bienes incorporados al gestor de fondos documentales

El total de bienes incluidos hasta la fecha en el gestor son 12.253, de los cuales 297 son nuevas entradas de documentación.

Acción 3.2. Elaboración de proyectos de investigación y documentación del

2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 70 KULTURA ETA KIROLA

Programa: 336702 HISTORIA ETA
ARKITEKTURA ONDAREA

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

Departamento: 70 CULTURA Y DEPORTE

Programa: 336702 PATRIMONIO HISTÓRICO
ARQUITECTÓNICO

ikerketa proiektuak egitea.

3.2.1. Kultura ondasunen inguruan finantzatutako azterlan eta proiektuen kopurua

Azterlan eta proiektu kopurua: 8

3.3 ekintza. ALHren ondare historiko eta arkitektonikoa dibulgatzea

3.3.1. Egindako argitalpenen kopurua

Argitalpen kopurua: 2

3.3.2. Antolatutako erakusketa eta jardunaldien kopurua

Jardunaldi eta aurkezpenen kopurua: 5

3.4 ekintza. Beste erakunde batzuekiko lankidetzak

3.4.1. Sinatutako lankidetzak hitzarmenen kopurua

Hitzarmen eta lankidetzak kopurua: 8

patrimonio histórico arquitectónico del T. H. A.

3.2.1. Número de estudios y proyectos financiados sobre bienes culturales

Número de estudios y proyectos: 8

Acción 3.3. Divulgación del patrimonio histórico arquitectónico del T. H. A.

3.3.1. Número de publicaciones realizadas

Número de publicaciones: 2

3.3.2. Número de exposiciones y jornadas organizadas

Número de jornadas y presentaciones: 5

Acción 3.4. Colaboraciones institucionales y con otros organismos

3.4.1. Número de convenios de colaboración firmados

Número convenios y colaboraciones: 8